

KULTURA MADRE AMANTISIMA ANTZEZLANA AZAROAREN 7AN · GEHIGARRIA KILIBARREN  
KIROLA ARETO FUTBOL TALDEEN AURKEZPENA

# BARREN

ASTEKARIA



JAIOTZA-ESTALPEEN ERAKUSKETA URRIAREN 31tik AZAROAREN 19RA

## Sabin Oregi, estalpeen maisua

"ETXE TXIKIA, BAKE AUNDIA" (esaera zaharra)

EL GOZU BARRIO ASTEKARIA 2003ko urriaren 31e/XI. urtea/463. zkia

# ZEZEN-BIDE

93)1

Koixerako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskuro dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela "rria"!



## ORDUTEGIA

1 0:00etatik-12:30era

1 5:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



**ingurumena**  
*Zure esku dago*

## INGURUMENA ZAINDUZ ETXEKO GASTUAK GUTXITU NAHI401TUZU?

Eman ezazu izena,  
**DOAN,**  
GAP Programan

GAP (Ekintza Plan Globala) programan parte hartzen duten etxeek %20 aurreztu dezakete urteko gastuetan eta eskuratu ahal dute etxea ekologikoa dela agiartzatzen duen Nazio Batuen ziurtagiria

(Debabarrena ko etxetarako)  
Ondarengo dituaik gaituzazal baitan sartu- seltua jertu eta helbide- nometara bidali.  
GAP-EUSKAD 3108 posta-kutxa, 48080 Bilbo  
Izena - abizenak:.....  
Helbidea:.....  
Posta-kodea:.....  
Herria:.....  
Tfn:.....

Norbanetan dituaik biltpekoak dira eta URTAD legea betez erabiltzen dira



# 40 URTE 40 ISTORIO

EGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELK ARTEA



33

## ARIGERA

1956an, Pako Juaristi zenak lortutako baimen bati esker, Euskaltzaindiaren *Academia de la Lengua Vasca* izeneko helduen GAU-ESKOLA jarri zen martxan Elgoibarren. 50eko hamarkadan euskarak gure herrian bizi zuen egoera beltzari kolore pixka bat emateko prestatu zen estreinako gau-eskola. Erdaldunek euskara ikas zezaten eta euskaldunak alfabetatzeko. Ordutik makina bat lan egin da, gau-eskolan hasieran, eta euskaltegietan, ondoren. Zenbat jende jardun ote du Elgoibarren euskara ikasten!

Baina euskalgintzako atal hau ezkutuan zegoen errezeloa genuen. Ez zitziola merezi zuen garrantzia ematen. Ez zela benetan baloratzen euskara ikasleek egiten zuten ahalegina.

Hala, herriko bi euskaltegiek, Udalak eta Elgoibarko Izarrak bat egin eta ARIGERA proiektua aurkeztu genuen 2000ko urtarrilean. Helburua helduen euskalduntze-alfabetatzea bistaratzea zen; euskaltegietako mundua geletatik kanpora ateratzea.

Hiru urtean jardun dugu hasieran jarritako helburuak bete nahian. Besteak beste, helduen euskalduntze-alfabetatzearen historia jasotzen duen liburuxka argitaratu genuen; omenaldia egin genien sektorean jardun duten ikasle eta irakasleei; BARRENen gehigarri berezia argitaratu dugu hileroko euskaltegietako jarduna ezagutzera emateko; eta, azkenik, tertuliak egitasmoa prestatu genuen euskara ikasleek euskaltegitik kanpo ere euskaraz berba egiteko aukera izan zezaten.

Eta hasiera guztiek bere amaiera izaten dutenez, ARIGERAK ere berea ezagutu zuen 2002ko abenduan. Hiru urteko lanak bere emaitzak eman zituela ikusi ostean.

*Imanol Larrañaga*

# iritzia



## Etorkizuna gure ekintzek bideratuko dute

Ostirala, gaueko 12ak. 4 lagun kotxez 1400 kilometro egiteko prest. Hau irakurrita, oporretara goazela esango luke batek baino gehiagok, baina ez, ez goaz oporretan. Espainiar gobernuak, PNVren oniritziarekin onartu zuen sakabanaketaren ondorioz Caceresko espetxean dagoen laguna ikustera noa ni. Inaxio Iriondo ere, Elgoibarko semea, bertan dago duela urteak. Traturik izan ez badugu ere, bisitan elkar ikusiko genuenaren esperantza nuen nik, baina ez. Inaxio aste honetan bisita gabe gelditu da: bere ilobatxoa mundu injustu honetara ate joka dabil, eta anaiak ezin izan du joan. Aitzitik, ez da bisitarik gabe gelditzeko arrazoi txarra.

Bisita: beira blindatu eta barrotez banatutako "telefono kabiña" bat, zu hor eta ni hemen: ukitu gabe, usaindu gabe, gertu... baina hain urruti. 1400 kilometro, 40 minutu, eta atea berriz itxi dira. Akabo. Orain, esandakoak erreparatzea besterik ez zaigu gelditzen, eta pozari, kilometroek gehitzen dioten arrangura nahastea.

Poza zoragarriak zaretelako, Caceres-en egiten duen hotzarekin horrelako abegi beroa egin ziguzuelako: eder, jator eta zutik jarraitzen duzuelako. Arrangura...sakabanaketaren aurka egon arren ahotsa altxatzen duten herritarren ahotsak ez ditudalako entzuten. Non dago herria? Ez duzue ba, guk ezer egin ezean, politikariek arazoa konponduko dutela sinistuko, ez da? Etorkizuna guk erabakitzea nahi badugu, guk jarri beharko ditugu ekimenak martxan, guk altxatu beharko dugu ahotsa: bestela, jai daukagu!

Lorea Perez de Albeniz

Kexak .....	5
motz M .....	8
gehigarri .....	3
kiROLA .....	9
.....	24

## ZER GERTATZEN DA KZ GUNEAN?

Elgoibarko KZ Guneak 820 erabiltzaile dauzka. Pasa den urriaren 13tik goizez itxi dute. Hori dela eta, elgoibartar asko intemetan nabigatzen ikasi eta gero, internet erabili gabe geratu dira, arratsaldeaz joan ezin dutelako. Eta beste batzuk ezin izango dute intemetan nabigatzen ikasi arrazoi berberagatik.

Dena den, arazoa okerrera doa. Pasa den astean astelehenean bakarrik intemetan nabigatu ahal izan genuen, hor ematen dituzten ikastaroak, noski, arratsaldeaz bakarrik eman ditzaketelako eta ordenagailu guztiak erabili dituzte aste osoan. Zorionez, aste honetan erabili ditzakegula ematen du, baina, zer gertatuko da ikastaroak emango dituztenean?

Ziur nago 820 erabiltzaileen artean jende mordoak ordenagailua bere etxean izango duela, baina baita gehiengoak ez daukala ere. Irailean egindako kanpainaren ondorioz jende pilo batek intemetan nabigatzen ikasteak pozten nau, baina denbora gutxi barru mila pertsona inguru izango gara, eta ez dugu lekurik izango praktikatzeko.

KZ Gunean ipinitako kartelak azaroaren 28ra arte goizez itxita egongo dela esaten du, baina nik hartu duten joera ikusita, zalantzan jarriko nuke abenduan irekiko dutela.

C.R.R.  
ENA 15387682S

## ESTRADIZIORIK EZ, JOSU LARIZ ASKATU

Josu Lariz Iriondo 1988an iritsi zen Uruguayra, eta bertan bizitza publiko arrunta egiten saiatu da, bertako Juanita Tarallorekin ezkonduz eta besteak beste, jatatxe ezagun batean lan eginez.

1992an atxilotu egin zuten, baina 1993an aske geratu zen, epaian Estatu Espainiarrera estradizioa ukatu zelarik.

2002an berriro atxilotu eta epaitu zuten Garzonek bere estradizioa eskatzen zuelako, baina noski, pertsona bat ezin da bi aldiz gauza berberagatik epaitu, eta berriro ukatu zuten estradizioa. Baina hara nola, aske utzi beharrean, aireportura eraman zuten ezkutuan, eta Argentinara bidali, non orain, urtebete egingo duen espetxean, Uruguayk eman ez duen estradizioa ea Argentinak ematen duen epaiaren zain.

Argi dago frogarik ez dagoela, baina espainiar Estatuak duen aukera bakarra, herri txiro hauek ekonomikoki txantaiatzea da, horretarako Giza Eskubide eta Nazioarteko Hitzarmen guztiak zapaltzen badituzte ere. Bere emaztea uda partean egon zen gure artean eta zuzenetik ikusi genuen egoeraren gordintasuna eta indefentsioa; baina argi utzi zigun Uruguay eta Argentinan egin den lan ugariak (mobilizazio, atxikimendu...) ahalbideratu duela Josu, Madrilerara ekarri, inkomunikatu... ez izana. Horregatik eskatzen diegu elgoibartarrei, egoera hau azalduz, salatzeke egingo diren ekimenetan parte hartzeke eta Josu berari ere elkartasuna adierazteke dauden helbide elektroniko eta telefonoak erabiliz.

Elgoibarko Etxerat

# Urruzunoren begi ezkutua

## 1/35eko Bilbo



Bilbo bizi naizen ikasle pisuko ohea bezalakoa da: 1'35ekoa. Handia izan daiteke, ni bezala, 80ko ohe txiki batean lo egitera, amestera, ilusionatzera eta negar egitera ohituta dagoen batentzat.

Hotza izan daiteke hasieran, batez ere, gure pisuan bezala berogailuak funtzionatzen ez badu. Baina gorputz atalez piskanaka bere bazter guztiak laztandu ahala, ertzetik ertzera oin eta hatz punteaz deskubritu ahala, 80ko ohean baino buelta eta bira gehiago eman daitezkeela ohartzen da bat, hankak eta eskuak luzatu daitezkeela bertako mugetatik irten gabe. Zaratatsua izan daiteke maiz, batez ere, nire ohe albotik bezala, ordulaurdenero trena pasatzen bada, baina gaueko hiruetan Gugenheimeko pasealekuan gora begira etzanez gero, norbere hatsa bihurtzen da hots eta Bilbo, handi eta isil. Arrotza izan daiteke inorentzat, baina atzean dudan nire ohera begira nagoen honetan, trena ez entzuteko belarrietako tapoiak ikusten ditut koltxoi gainean, hotzetik babesteko lau manta kiribildurekin jolasean. Eta barregura ematen dit. Eta lenteja erreen usaiaren atzetik igerian sukalderraino iristen da nire gogoa: Etxalar, Mutriku eta Beasain. Nire pixukideak. "Hagitz aunitz matxereu gure pixue" esango lukete hirurek batera. Eta Bilbo. Bilbo Handia. 1'35eko Bilbo.

Uxue Alberdi

**BARR**

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12  
Publizitatea:  
943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta:  
[barren@topaquea.com](mailto:barren@topaquea.com)  
Helbide informatikoa:  
[www.topaquea.com/barren](http://www.topaquea.com/barren)  
ARGITARATZAILEA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarle PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguren KOLABORATZAILERAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Eduarne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZANARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gerlu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOHARKO\_IZAKIA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



## ? GALDERAK


- Herritar batek ondorengo galdera luzatu digu: **herrian egiten ari diren obrak aprobetxatuz, ba al dauka Udalak San Rokera dihoan errotonda zabaltzeko asmorik?** Errotonda hau oso itxia da, eta kotxearekin maniobra ugari egin behar izaten da. Udaleko hirigintza zerbitzura deitu dugu, eta esan digutenez, momentuz ez dago errotonda hori aldatzeko asmorik.



- Herritar batek galdera hau ekarri du Barren-eko erredakziora: **Arriगतik Sigmara doan autobusa zergatik ez da auzo guztietatik pasatzen?** Eusko Tren-era deitu dugu, eta auzoz-azuko zerbitzua jartzea oso garestia dela esan digute. Aurrerago, Elgoibarko Udalarekin akordio bat lortuz gero, beharbada, posible izango litzateke zerbitzu hori zabaltzea, baina momentuz ez.

- Herritar batek azaldu digunez, **Altzolako kanposantuko kapila puskatuta dago: "Denbora mordoia darama kanposantuko kapilak puskatuta. Oso egoera kaskarrean dago, eta aspaldi esan genion Udalari kapila behera erortzeko moduan dagoela. Konponduko zutela esan ziguten, baina oraindik ez dute ezer egin".**

- Emakume batek esan digunez, **Altzolan egin duten iturri berriak ez dauka urik: "Etxe berriak egiteko, lehengo iturri zaharra kendu eta iturri oso dotorea jarri dute, baina ez dauka urik. Horretarako hobe zen iturri zaharra zegoen moduan laga balute. Ea laster konpontzen duten".**



## KASUALITATEAK HOBBY BIHURTUZ

Betidanik izan du gustuko Sabin Oregik eskuz lan egitea. 70 urte hauetan, ez da geldirik egon, eta lanetik irten ostean, ortuan egiten zuen lan. Hala ere, jaiotzen estalpeak egiten, kasualitatez hasi zela kontatu digu: "Gabon inguruan aldameneko bizilaguna etorri zan etxera, lagunere batek egur pusketan zahar batzuk eramane zizkiola, ta ia horrekin jaiotza eitzeko kapaz izango nintzan. Zeozer diferentia nahi zabala, ta ia zeozer eingo nion esane zian. Holaxe hasi nintzan, haura izan zan nere lehen estalpia".

Kasualitateak ez dira askotan kasualitate hutsak izaten, eta oraingo honetan behintzat, kasualitatea baino askoz gehiago izan zen alboko bizilagunaren eskaria. Sabin Oregik hobby bezala hartu zuen jaiotza estalpeak egitea, eta bizpahiru urteren buruan, 50 estalpe **desberdin egin ditu**: "Aldamenekuana amaitxu nabanean, etxerako ein nabane bat, gero lagun batek beste bat eskane zian, ta azkenian jaiotzak eitzixari gustua hartu nion. Bi edo hiru urtetan, 50 estalpe inguru ein ditxut, gehixo ez bada, eta danak diferentiak, ez daude bi igualak".

## GUSTU GUZTIETARAKO ESTALPEAK

50 estalpe egiteak meritua baldin badauka, meritu handiagoe dauka guztiak desberdinak egiteak: "Estalpe esklusibuak dia, beste inun ez dot holakorik ikusi. Bat ein eta amaitzen ari naizenian, hurrengua zelakua eingo doten buruan eukitzen dot. Estalpia eitzxen nabilen momentuan etortzen jataz idea berrixak burura. Datorren urterako beste 6 edo 7 eitzeko

ideak baditxut, gero ez dakit eingo ditxuten ala ez. Datorren urtian ikusi biharko da".

Tamaina eta estilo guztietako estalpeak egin ditu Sabin Oregik. Handiak, txikiak, egurrezkoak, kartoizkoak... baina bere lanik ederrena, San Lorentzo elizarako egin duen estalpea izan da: "Nere andria San Lorentzo bailarakua da, eta bertako elizarako estalpia ein dot. Danetatik haundixena da, ordu asko pasau ditxut hori eitzxen, egurrezkoa da, lan haundixa eman dia, baina emaitzakin oso pozik nae. San Lorentzoko elizan ipiniko dogu, andria ta bixon erregalua izango da".

**"Jaiotza estalpia eitzia hobby bat da neretzat, honekin gozaten naiz"**

Sabin Oregi

## ESKULANETARAKO ZALETASUNA

Honelako lanak egiteko, derrigorrezkoa da eskulanetarako zaletasuna izatea, eta Sabin Oregik soberan daukala erakutsi du. Berak esane digun bezala, dena bere kabuz ikasi du, eskolara juteko aukerarik ez baitzuen apenae eduki: "Beti gustau izan jata neri eskuekin lan eitzia, geldi egon ezin naizen horretakua naiz. Jubilauta nae. eta beste zereinik ez dakatenez, ordu asko pasatzen ditxut honetan. Honetxekin gozaten naiz".

Hasieran etxekoek ez zuten bere zaletasun bitxi hau ulertzen, baina orain, emaztea ere poztu egiten da Sabinekin estalpe berri bat egiten duen bakoitzean: "Beste bat zertarako ein bihar dozu ba? Galdetzen ziane askotan andriak. Ez nakixan erantzuten, baina nere gozamena ikusitxa, oin bera ere poztu eitzxen da".



# za IESTAILPIEAK

SABIN OREGI PLAENTXIARRA DA JA IOTZEZ, BAINA URTE A4ORDOA DARAMATZA ELGOIBARREN BIZITZEN. 70 URTE DITU, ETA ILIBILATLITA DAGO, BAINA EZ DA HORREGABK EZER EGLN GABE GELDITZEN DEN HORIETAKOA. GIZON HONEK BADAUKA ORDU ASKO KENTZEN DIZKTON HOBBY BAT: DUELA BIZPAHIRU LIRTE, GABONLTAKO JA I077EN ESTALPEAK EGITEN HASI ZEN, ETA DAGOENEKO 50 ESTALPE INGURU DITU. ELGOIBARKO KULTURA SAIALAK, ERAKUSKETA ANTOLATU DU SABIN O,REG7REN LANEMN. GAUR ARRATSALDEAN INALIGURATUKO DA ERAKUSKETA KULTUR ETXEKO SOTOAN. ETA DATORREN AZIROAREN 20RA ARTE FGON D1RA SABINEN JAI077A ESTALPEAK IKUSGAL

## ESTALPEAK, HASIERATIK BUKAERARA

Etxean bere lanak egin eta gordetzeko lokal bat egokitu du Sabineke, eta bertan pasatzen ditu eguneko ordu gehienak. Hala ere, estalpeak egiteko prozesua askoz luzeagoa da. Sabineke berak jasotzen du beharrezko material guztia: eta ez da gutxi: "Hasieran estalpe danak egurrezkuak eitzen nitxun, baina oso zaila da arbola azal egokixak bilatzia. Oin gehixo erabiltzen dot kartoia".

Inguruko mendi eta zelaiak ondo ezagutzen ditu Sabineke, eta badaki material egokia non bilatu: "Egurra inguruko mendixetan hartzen dot, goroldixan bila Lastur aldera juten naiz,



eta hondarra, harrizak eta kontxak Saturraranekek ekartzen ditzut". Material guztia bildutakoan, egokitu egin behar izaten da:

"Egurra eta goroldixa sikatzen laga bihar dia, eta denboraldi bat pasau ostian, goroldixa usteldu eitzen danetz, zaharra kendu ta berrixa ipini bihar jako estalpiari".

Kartoia lan gutxiago eskatzen du mantenimentu aldetik, baina hala ere, badauka lana: "Kartoizko estalpietan, ez da kartoia inundi ere ikusten. Barrutik eta kanpotik harrizak eta hondarra ipintzen diot, eta horrek denboria eskatzen dau".

Denbora eta pazientzia handia behar da, dudarik gabe, honelako lanak egiteko. Sabinentzat, ordea, gozamenaren sinonimoa da lan hau, eta ahal duen heinean, estalpeak egiten jarraituko duela azaldu digu.

## ERAKUSKETA KULTUR ETXEKO SOTOAN

Sabin Oregi kasualitatez hasi zela estalpeak egiten esan daiteke, baina, gaur egun, artista bikaina egina dago, eta artista guztiek egin ohi duten moduan, bere lanak jende aurrean aurkezteko erakusketa antolatu du. Urriaren 3tik azaroaren 20ra arte egongo dira ikusgai bere estalpeak Kultur Etxeko sotoan. Bisita orduak, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara, eta asteburuetan

eguerdiko 12:00etatik 14:00etara izango dira. Bere lehenengo erakusketa da hau, eta Sabin Oregik ilusio handia dauka: "Nere ezagunek ikusitxa ditzue estalpe honek, baina beste jende askok ez daki holako lanak eitzen ditzutenik. Politxa da, norberak gustuakin eindako lanak erakusteko aukeria izatia".

34 estalpek osatuko dute erakusketa. Denak desberdinak dira, eliza formakoak, baserri itxurakoak, txabola puskatuak... tamaina eta forma guztietako lanak egongo dira erakusketan: "Momentuan



dauzkaten lan danak ekarri ditzut. Danera 50 inguru dauzkat einda, baina asko erregalau ein ditzut, eta besteren batzuk saldu ere bai".

Erakusketan ikusgai dauden estalpeetatik 6 salduta daude, eta Sabinen nahia, beste guztiak saltzea da. Arazo bat dauka ordea, ez daki bere estalpeei prezioa nola jarri: "Ez dot nahi garestiegi ipintzia, baina erregalauta ematia ere ez. Eskuz

eindako lanak asko balixo dau, edozein dendatan holako lan batek sekulako prezio garestixa eukiko leuke, eta nik ez dakituzenbatian ipini".

Presarik gabe egiten du lana Sabineke, bere erritmora, eta gogoa daukanean bakarrik. Datorren urterako, beste 6 edo 7 ideia buruan dauzkala aitortu digu: "Badauzkat ideia batzuk datorren urterako, baina erakusketan jendiak zein apreziatzen daban gehixen ikustia nahi dot, eta haren estilokuak eingo ditzut".

## Santa Klara auzoko Goratu enpresa dagoen lekuan 60 etxebizitza eraikiko dira

Urte gutxiren buruan 120 etxebizitza berri izango dira Santa Klara auzoan

**J**oa zen urriaren 17an egin zen Udal Plenoan, aho batez onartu zuten Aizkorri 6. sektoreko arau subsidiarioak aldatzea. Erabaki honen ondorioz, gaur egun Goratu enpresak Santa Klara auzoan betetzen duen lur industriala, bizitegi gune bezala izendatuko dute, bertan etxebizitzak eraikitzeko.

60 etxebizitza

Proiektu hau "Viviendas Santa Clara, S.L." enpresak gidatuko du, eta bloke desberdinetan banatuta, 60 etxebizitza eraikiko dituzte. "Neinor" enpresa dagoeneko, hasi da Santa Klara auzoko Aizkorri 5. sektorean beste 60 etxebizitza eraikitzen, beraz, urte gutxiren buruan, 120 etxebizitza berri izango dira Santa Klaran.



## Bihar, Santu Guztien Eguna dela-eta, elizkizun bereziak izango dira

**S**antu Guztien Eguna ospatuko da bihar, Azaroaren lean. Ohiturak eta tradizioak agintzen duen moduan, meza entzun ostean, hildakoak bisitatzea joango dira fededunak kanposantura. Aste

osoan zehar ibili da jendea bere senideen nitxo eta panteoiak lorez apaintzen, baina bisita ofiziala biharkoa izango da. Beste askorentzat, egun honek ez du inongo esanahi berezirik izango, baina

interesatuek, goizeko 7:00etatik gaueko 21:00etara izango dute zabalik kanposantua. Honekin batera, beheko koadroan azaltzen dira, biharko elizkizunak.



### SANTU GUZTIEN EGUNENKO MEZAIIEZIAK

	PARROKIAN	SANTA KLARAN	MADALAN
<b>Azaroak 1</b> Larunbata Santu Guztien Eguna	10:30 11:30 12:30 18:00 Errosarioa hildako guztien alde eta Jauna agerian jartzea	09:30	08:30
<b>Azaroak 2</b> Igandea	10:30 12:30	09:30	08:30



## Elgoibarko Izarrak atzerritarrentzako errefortzu programak jarri ditu martxan

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek, Udalaren laguntzarekin, Elgoibarren eskolatuta dauden atzerritarrentzako errefortzu saioak antolatu ditu 2003/2004 ikasturterako. 6 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago programa, eta guztira 20 lagunek hartuko dute parte. Brasil, Kolonbia, Bolivia, Pakistan, Argentina, Caceres, Leon eta Galiziako haurrek hartuko dute parte programan.

Programaren helburu nagusia, euskararen ikaskuntzan lagunduz, kanpotik datozen haur hauen integrazioa erraztea da. Ahozotasuna eta hizkuntzaren alde funtzionala landuko dira bereziki: agurrak, familiako hiztegia, etxekoa, eskolakoa, aurkezpenak, norberaren nortasuna, adina...

Begirale baten laguntzarekin, eta dinamika desberdinen bitartez (jolasak,



marrazkiak, mimika, elkarrizketak...) ahozotasuna eta komunikatzeko gaitasuna landuko dituzte.

Programa hau azaroan hasiko da, eta ekainera arte, astean hiru orduko saioak eskainiko dira; guztira 312 ordu inguruko iraupena izango du kurtsuak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, [nerea.larra@elgoibarkoizarra.com](mailto:nerea.larra@elgoibarkoizarra.com) helbidera e-mail bat idatzi, edo 943741626 telefonora deitu, eta galdetu Nerea Larrañagatik.

## Biluzik Sexologia Zerbitzuak antolatutako sexu fantasiak jasotzeko kanpaina azaroaren 10ean amaituko da

Biluzik Sexologia Zerbitzuak Elgoibarko 16 eta 30 urte bitarteko gazteen sexu fantasiak ezagutu nahi ditu. Fantasia hauek labur-labur idatzi, eta biluzikzerbitzua@yahoo.es helbide elektronikora edo Biluzik Zerbitzua. Kultur Etxea. Nafarroa Enparantza 4, 20.870 Elgoibar helbidera bidali daitezke. Ez dago izenik jarri beharrik, sexu fantasiak jasotzea da kanpainaren helburua, bidaltzailea anonimoa izan daiteke. Kanpaina hau datorren azaroaren 10ean amaituko da, beraz, interesatuek denbora daukate oraindik.



**Biluzik**  
MOLOG I 0. ebRRIIUDd

## 1. asteburuero Boutique del Panen...

San Bartolome, 6. Elgoibar

GAZTE PACKa!



01111.0.4 eta aloka ezazu bideo bat doan

Boutique del Pan

Videoclu b LEKU

## GAP PROGRAMAN PARTE HARTZEKO TXARTELA (Debarrenako etxeetarako)

Deba, Eibar, Elgoibar, Ermu, Mallabi, Mendaro, Mutriku eta Soraluze



ingurumena  
Zyju's eskux bur

INGURUMENA ZAINDUZ ETXEKO  
GASTUAK GUTXITU NAHI DITUZU?

Bai, 4 GAP eskuliburuak, DOAN, jaso nahi ditut

Izena: 11111ij

Abizenak: \_\_\_\_\_

Hebidea: \_\_\_\_\_

Zenbakia: tiii Atea/Solairua/Eskailera: ' 1

Posta-kodeas \_\_\_\_\_ derria. \_\_\_\_\_

Telefonia 1111111111

e-mail: \_\_\_\_\_

bleaki teadel hau. gutunaeal batean sadu, seehe pare, eta helbide hanelara bodab  
GAP-EUSKAD1. 31108 posta-kutxa. 48080 ailbo  
Noebe, ared datuak dilyekoak dira eta lardn0 legea betez erabileen dea

Barren

Aldizkariaren laguntzaz

## Zapatuan aurkeztu zuen Ibarretxe lehendakariak Euskadiko Erkidegoaren Estatuto Politikoaren proposamena

### ZERGATIK HARROTU DU HAINBESTE HAUTS IBARRETXEREN PLANAK?



**MIRARI ZUBIZARRETA**  
54 urte, etxeoandrea

Espainiarrak oso hasarre daudelako euskaldunekin, eta beraien defentsia ein nahi dabelako. Ez da erreza danon gusturako plana osatzia. Nik badakat esperantzia plan honetan.

**JOSE MANUEL HERRERO**  
52 urte, autopistako langilea

Plan honek bizilagun guztiak banatu egiten dituelako. Normala da jendea haserretzea, plan honek bizilagunak elkarrekin bizitzea oztopatu besterik ez baitu egiten. Ez dauka etorkizunik.



**PEDRO SAN MARTIN**  
52 urte, torneroa

Madril eta Euskal Herriaren artian pike haundixa daualako. Edozer aurkeztuta ere, beti kontra azalduko dia. Oin momentuan ez diot etorkizunik ikusten plan honi.

**ARANTZA EIZAGIRRE**  
44 urte, etxeoandrea

Gobierno Zentralari ez zaiolako batere interesatzen. Hemengo jende gehixena, planan alde egongo da, baina Madrilen ezezko indartsua eman debe. Hemenguak alkartuta eukiko du plan honek etorkizuna.



**PAKO IRIONDO**  
77 urte, Mendi Federakuntzako ohorezko presidentea

Momentu txarra dalako. Aldaketia onerako edo txarrerako dan ez dakigu, baina intentua ein bihar da, eta herrixari eman bihar jako erantzuteko aukeria.

**ISABEL AIZPITARTE**  
69, etxeoandrea

Ez dakit ba! Nik irakurtzen dotenez, plan hau onerako da. Soluzio baten planteamentua da. Ez dakit nik irakurtzen doten gaizki, ala Madrilen dabizen oker.



**BITXIDENAKO KRISTALEZKO  
MOSTRADOREAK ETA  
APAL METALIKOAK (MODULOAK)  
MERKE SALTZEN DIRA**

**Tel.: 943 74 25 35**



**karfzizano**

San Frantzisko, 14 — Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49

111\$1151 1111111111

**UZURI LARRAÑAGA**  
**UZURI OPTIKA**



## BELARRIEN GARBIKETA

**K**anpo belarriak nahiko eraginkorra den garbiketa sistema bat dauka. Adibidez, tinpanoaren zentruan talka egin duen hondar ale bat, hiru hilabete beranduago konduktu auditiboaren barruko aldean aurkituko da, eta atzamarrarekin kendu ahal izango dugu, belarriaren kanpoaldean dagoen beste edozein objektu bezala: azal lehortua, ilea, belarriko argizaria... poliki-poliki mugitzen joango dira kanpo entzumen konduktura.

Belarriko argizaria ez da tinpanotik gertu sortzen, kanpoko entzumen konduktoan baizik. Ondorioz, argizariaren mugimendu denbora hondarrarena baino motzagoa da. Beraz, argizaria kentzeko basitoitxoak edo antzerakoak erabiltzen baditugu, zati bat kanpora aterako da, baina beste bat barrurago sartuko da, tinpanoa mintzeko probabilitate handia sortuz. Belarriko konduktoaren azala urratzen bada, belarriko babes funtzioan parte hartzen duen mekanisko garrantzitsua mintzen da. Bestalde, beharrezko PHa mantentzen duen keratina geruza ere mindu dezakegu, onddo eta infekzioak handituz.

Gehiegizko garbitasuna duen belarri bat, askotan, gaixo dagoen belarria izan daiteke. Adituen arabera, ez da inoiz norberaren ukalondoa baino gauza txikiagorik sartu behar belarrian.

Tinpanoa osasuntsu dagoenean, ez da beharrezkoa dutxan edo bainuan tapoiak jartzea. Honela, belarriaren garbiketa naturala gertatuko da, lehorra dagoen argizaria humelduz. Infekzioak ditugunean, ordea, tinpanoa babestu egin behar da, beraz, gomendagarria da tapoiak erabiltzea.

Audifonoak konduktoa itxi eta garbiketa naturala eragozten du, argizaria moldearen puntan eratuz eta tapoiak sortuz.

Zer egin dezake, beraz, audifono erabiltzaileak? Lehenik eta behin infekzioak sahiestu, audifonoa eta moldea garbi mantenduz. Argizari biguna ekoizten duten audifono erabiltzaileei aparailuan itsasten zaie, beraz, egunero garbitu beharra dago. Era berean, otoskopioaren bidezko rebisio periodikoak beharrezkoak izango dira, eta argizariaren gehiegizko pilaketa nabari bada, modu profesionalan egin beharko da garbiketa, tapoien agorpena baino lehen.

Araua: Ez da inoiz norberaren ukalondoa baino gauza txikiagorik sartu behar belarrian.

*Uzuri Larrañaga*

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu,  
 deitu BARRENeKo 943 74 41 12ra



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

### Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

### Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIKAK

### Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

### Inaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

### Oinberri

Errosano kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 74 37 04ra

## Prestakuntzaren Kalitatean egindako lanagatik esker ona jaso dute IMHk eta LH Institutuak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatuta, **Euskal Lanbide Heziketaren Esker Oneko Ekitaldia** izan zen joan den urriaren 23an Euskalduna Jauregian. Euskal Herriko **Lanbide Heziketa** Ikastetxeetako ikasle, irakasle eta langileen artean, bi mila lagun baino gehiago bildu ziren bertan; Lanbide Heziketa egun dagoen punturaino iristen lagundu duten pertsoneri, erakundeei eta enpresei omenaldia egiteko. Jauralritzaren ordezkari gisa, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria eta Anjeles Iztueta Sailburua izan ziren.



*IMHkoek ekitaldi egunean Bilbon ateratako argazkia.*

Joxean Egaria, IMHko zuzendariak, eta Iñaki Konde LH Institutuko zuzendariak Arturo Andradek diseinatutako eskultura bana jaso zuten. Elgoibarko bi ikastetxe hauekin batera, Euskal Herriko beste 36 ikastetxe izan ziren sarituak, Gipuzkoako 19.

Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak itxi zuen ekitaldia ikasle entzuleei bere hitzak eskainiz. Egungo gizartean paper garrantzitsua dutela esanez, eta etorkizuna beraien esku dagoela gogoratu, amaitu zen ekitaldia.

## Txandakako Ingeniaritzako 5. promozioiko ikasleek kurtso bukaerako ekitaldia ospatu zuten



Joan zen urriaren 24an, ikasle, guraso, tutore eta irakasleek diploma banaketa ekitaldian parte hartu zuten IMHko Areto Nagusian.

Ekitaldi honetan, Parisko CESI Txandakako Ingeniaritzako Zuzendaria den Christiane Rabasse andreak, IMHko Zuzendaria den Joxean Egañak eta Ingeniaritzako Zuzendaria den Valentin Gonzalezek hitz egin zuten. Honekin batera, Egoitz Badiolak, Ingeniaritzako 2. promozioiko ikasle ohiak, bere lan esperientzia azaldu zien bertaratu zirenei eta azkenik, Agustin Pradok 5. promozioiko ikasleen ordezkari bezala parte hartu zuen.

Hiru urtean zehar enpresako lana eta IMHko ikasketak txandakatu ondoren, enpresa munduan integratzeko momentua iritsi zaie diplomatu diren ingeniariari.

## Pilar Ikastetxeko guraso eta irakasleen arteko topaketak hasi dira

Irakaskuntza Erlijosoen Federakuntzak antolatuta, Elgoibarko Pilar Ikastetxeak joan zen urriaren 23an, ostegunean, jarri zituen martxan guraso eta irakasleen arteko topaketak. Proiektu honetan 52 lagun ari dira lanean, guraso eta irakasleak barne. Bilera hauek hilean behin egingo dira eta bertan, irakasleek eta gurasoek, talde txikietan bilduta, gai desberdinei buruz hitz egin eta ikuspegi ezberdinak landuko dituzte.

Gaur egungo mundu aldakor honetan seme-alabei behar duten hezkuntzarik egokiena eskaintzeko, ezinbestekoa da beraien kezka eta ardurak ezagutzeko akordioak lortzea. Iazko esperientzia ikusita, aurten ere jarri dituzte martxan topaketa hauek.





# BaRRRen

## "Kutsidazu bidea, Ixabel" antzerkia izango da Goñati pilotalekuan, Azaroaren 7an

Joxean Sagastizabalen liburuan oinarrituta dago antzezlan

Gorringo Antzerki Taldeak "Kutsidazu bidea, Ixabel" antzezlan aurkeztuko du Azaroaren 8an, gaueko 22:00etatik aurrera, Goñati pilotalekuan. Joxean Sagastizabalen lanarekin barre egin duten irakurleek Hernani aldeko baserriko pertsonaiak hezur-haragi bihurtuta ikusteko aukera izango dute, baita liburuko umore eta hizkuntzarekin gozatzeko ere.

Anjel Alkain, Sorginen Laratza saioan nabarmendutako aktorea da taldeko zuzendaria eta obra honetan produktore-lana egin duena.

Euskaltegian euskara ikasten ibili ondoren, bere euskara hobetu nahian, Tolosa inguruko baserri batera dihoan Juan Martinen abenturak



Gaueko 22:00etan hasiko da ikuskizuna.

kontakten dira obran. Aipatzekoa da izugarrizko arrakasta izan duela Udalak antolaturiko antzerkiak eta bat baino gehiago direla berandu ibiltze-agatik sarrera gabe geratu direnak.

Antzezlan Urriaren hasieran taularatzekoa bazen ere, Kilometroak jaiarekin bat egin ez zezan hilabete atzeratu du Udalak.

## Udaletnak antolaturiko kurtso eta tailerrak martxan dira dagoeneko

Mendaroko Udalak urte osoan zehar, abuztuan izan ezik, ekintza desberdinak antolatzen ditu. Horietatik aipatzekoak dira: eskulan eta dekorazio tailerra, marrazki eta pintura tailerra, dantza klaseak, ballet, aerobik, salsa, trikitixa kurtsoa, solfeoa eta yoga klaseak, besteak beste. Apunta zaituzte zu ere!



## Hilerrien garbiketak hasi dira

Datorren Azaroaren 1 ean, Santu Guztien Eguna ospatzen da eta ohitura den bezala hildakoen omezez erreztzera abiatuko da jendea. Horregatik, hilerrien garbiketak hasi dira dagoeneko. Azaroaren 2an, domekan, Mendaroko bi hilerrietan, bai Azpilgoetan, bai Garagarzan, mezetak egongo dira 11.00etan eta 12.00etan.

## Azpilgoeta auzoko kale batzuk asfaltatu dituzte

Egun hauetan zehar, Azpilgoeta auzoko kaleak asfaltatzen ari dira, baita 50 etxebizitza inguru dituen urbanizazioa ere.

Piskanaka auzoko kaleek itxura hobetu dute, hainbat urtetan obregatik kaltetuak izan ondoren. Itxuraldaketa nabarmena sortu du asfaltuak kaleetan, dudarik gabe.

## Eskola Kiroleko emaitzak

Pasa den ateburuan Elgoibarko Kiroldegi eta Herri Eskolan, Mendaro Ikastola, Elgoibar Ikastolaren aurka aritu zen oso emaitza onak lortuz.

Benjamin kategorian, eskubaloiko emaitzak honakoak izan ziren: Mendaro 1 Ikastola A 1, Mendaro B 24 - Ikastola B 0.

Alebinak ordea saskibaloian aritu ziren, emaitza hauek lortu zituztelarik: Herri Eskola 12 - Mendaro 33.

Mendarotarren trebezia ez zen alperrik galdu eta eskubaloiko eta saskibaloiko irabazleak izan ziren.



# AIRE BERRIAK

Mendaro Telebistak aire berriak ditu. MTBren aurrekontua jetsi dela eta, pertsonalaren murrizketa egon da eta programazioak ere hainbat aldaketa izan ditu. Hau guztiaren berri ematen dizuegu erreportai hontan, baita etorkizunera begira zein den Mendaro Telebistaren asmoa.

**M**endaro INTERNET-en proiektuaren barnean sortu zen MENDARO TELEBISTA, MTB siglez ezaguna, herriari zerbitzu berri bat eskainiz. Euskadin dauden 31 Telebista Lokaletako bat dugu MTB eta Mendaroko herritarrentzat erreferente bat da, bere hurbile-neko errealitateaz informatzeaz gain, aisialdiko denbora osatzen duena.

Dena den, arrazoi ekonomikoak dira medio, Udalak MTBko aurrekontua murriztu du eta horregatik hasiera bateko programazioa aldatu behar izan da.



Udaletxe kanpoko enpresa bat arduratzen zen pertsonalaren kontratuez, administrazio gastuez, gizarte segurantzaz, eta gestioaz, eta Udalak urtero 120.000 euro ordaindu behar zion enpresa honi. Gastua handiegia zela eta, langile murrizketa egon da.

Lehen, enpresak kontratatu zuen pertsonala, baina orain Udalak deialdi publiko bat cgin du. Azterketa batzuk egin ondoren, Leire Eizagirre eta Eli Aizpuru izan dira aukeratuak. Leire alderdi teknikoaz arduratzen da eta Eli berriz, kazetaritzaz. Biak MTBko lehenengo etapako langileak izan dira. 6 hilabetez egun erdiz arituko dira lanean.

## HASIERA BATEAN 4 ARDATZ SENDO ZEUDEN MTBN:

### 1. Informazioa

Telebistaren puntu indartsu bat programazio informatiboa zen, eguneroko informazio programetatik hasita, monografiko eta astekariak barne.

### 2. Kultura

Kultura izaerako gertaraken emanaldiez gain, bere hedapenerako zenbait programa kultural izan zituen, historia, literatura, musika, artea etab.i buruzkoak.

### 3. Hezkuntza

Urrutiko irakaskuntza, hizkuntzen kurtsoak, hezkuntzaren osagarri diren haur eta gazteen programak etab.

### 4. Entreenimendua

Herritarren aisialdi eskaintza hobetzen laguntzea xede zuten programak.

Orain berriz, arlo guztiak bilduko dituen programa bakarra emitituko dute, albisteak sakonduz, ikuspuntu desberdinak jasoz eta herriko jendearekin egindako elkarriketak informatiboetara eramanez. Gaien tratamendua ere aldatzea nahi dute, gai orokor bat hartu eta Mendarora ekarri. Horrela gaiak ez lirakeke errepikatuko eta dinamikoagoa izango litzateke programa.

Hasiera batean asteazkenero gaueko 21:30etatik aurrera emitituko da programa, baina aldaketak gerta daitezke ordutegi hobea-go bat bilatzen bada.

# MENDARO TELEBISTAN



## ETORKIZUNARI BEGIRA

MTBren etorkizunaz galdetu diegu Eliri eta Leireri, baita bailara osoa hedatzea posible izango den epe luzera

Eli "Hasiera batean, Mendaroko Talde Independentearen asmoa bailara mailako telebista bat egitea zen eta oraindik bada, baina emandako arrazioen arabera diru asko gastatzen zen eta Telebista mantentzeak gastu handia zeukan. Orain beraien asmoa bi pertsonarekin eta jornada erdiz lan eginez MTB mantentzea da, praktike-tan dagoen jendearekin Telebista martxan jarraitzea posible izan arte".

Leirek berriz zera esan digu: "Hau guztia horrela mantentzea da asmoa, Telebista bailarara hedatzeko proiektua gauzatu arte behintzat, baina horretarako denbora asko beharko da, urtebete, 2 urte agian. Horregatik hasiera batean gu egongo gara MTBn lanean".

Mendaroko herriaren erantzunaz galdetu diegu baita Elik hau esan digu: "Askotan jendeak komentatzen zigun kalean: 'atzo oso ondo! Hura atera zan...' ikusten genuen jendeak MTB jarraitzen zuela. Gertatzen dena da, ez dakigula herrian zenbatek ikusten duten, horrelako datuak ezezagunak dira guretzako. Gainera, leku guztietara ez da MTB heltzen, baserri nahiz etxe batzuetan ez da ikusten, batez ere kablea sartuta ez dagoen zonaldeetan."

Batez ere, jende edadetuak, umeek eta gurasoek ikusten dute Mendaro Telebista, eta epe luzera Interneten bidez Mendaro Telebista ikustea nahi da.

Horrenbeste lan egin ondoren, pena bat izango litzateke guztia bertan behera geratzea. Horregatik, ez ezazue galdu asteazkenero 21.30etako programa! Ziur gustoko izango duzuela!

**"TEIEbista bailarara EratzEko proiektua gauzatu arte dEnbora asko bEharko da"**





.....

ilabete honetako argazkia **Janire Elordik** laga digu. 1971. urtean ateratakoa da eta ez da oso argia izan behar lehen jaunartze egunean ateratakoa dela konturatzeko. Argazkiaren atzealdean ikusten den baserria Ospas da, baina gaur egun erabat eraberrituta dago eta inguruak ere asko aldatu dira, Mendaro ezagutzen duzuenok konturatuko zineten moduan. Izan ere, A-8 autopista pasatzen da gaur egun argazkian ikusten den bidetik eta Ospas baserrikoek ondoan eraiki zuten beste bide bat erabiltzen dute baserrira ailegatzeko, noski.

Ikus dezagun nor den argazkian agertzen den bikotea: lehen jaunartze eguna ospatu zuena **Asun Loiola** da eta berarekin dagoena, berriz, **Karmen Loiola**.





## Farmazia - okindegia

### EGUNEZ

- 31 Zabaleta
- 1 Etxeberria  
(Errosario kalean)
- 2 Etxeberria  
(Errosario kalean)
- 3 Ibañez
- 4 Bidasolo
- 5 Etxeberria  
(Santa Ana kalean)
- 6 Fernandez
- 7 Yudego

### GAUEZ

- Zabaleta
- Etxeberria
- Etxeberria
- Ibañez
- Bidasolo
- Etxeberria
- Fernandez
- Yudego

### FARMAZIAK

- ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38
- FERNANDEZ**,  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42
- ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

- 1 Iarunbata** Idarraga
- 2 igandee** Doña Mercedes

### OSASUNA

- Anbulatorioa ..... 943 03 26 10
- Planning-a ..... 943 74 29 50
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 74 03 85
- D YA (anbulantzia) ..... 943 46 46 22
- Gurutze Gorria ..... 943 74 38 64
- Mendaroko Ospitalea ..... 943 03 28 00
- Odol Emaileak ..... 943 74 39 36

### GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak ..... 943 74 04 42
- PESA (Eibar) ..... 902 10 12 10
- Taxi geltokia ..... 943 74 08 98

### UDALA

- Euskara Zerbitzua ..... 943 74 43 66
- Udal Kirol Patronatua ..... 943 74 44 15
- Kultura Zerbitzua ..... 943 74 21 58
- Mendaroko Udala ..... 943 75 61 00
- Ongizate zerbitzua ..... 943 74 10 08
- Udaletxea ..... 943 74 10 50
- Udaltzaingoa ..... 943 74 13 94

### BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra ..... 943 74 16 26
- Kiroldegia ..... 943 74 44 15
- Kontsumo Bulegoa ..... 943 74 30 88
- Liburutegia ..... 943 74 35 25
- Musika Eskola ..... 943 74 21 45
- M intxeta ..... 943 74 43 15
- Parrokia ..... 943 74 08 42
- Postetxea ..... 943 74 15 47
- Gaztetxea ..... 943 74 35 72
- Gazte Informazioa ..... 943 74 14 61

### ADINEKOEN ETXEA

- San Lazaro Egoitza ..... 943 74 02 96
- Zaharren Biltokia ..... 943 74 05 26
- Eguneko Zentroa ..... 943 74 45 65

### IKASTETXEA

- Haur Eskola ..... 943 74 21 41
- HHI (EPA) ..... 943 74 08 80
- Herri Eskola ..... 943 74 08 79
- I M H ..... 943 74 41 32
- Institutua
- Arreiturre ..... 943 74 80 19
- Ezenarro (Meka) ..... 943 74 80 19
- I kastola ..... 943 74 44 41
- Pilar Ikastetxea ..... 943 74 13 31

### KOIVIUNIKABIDEAK

- BARREN ..... 943 74 41 12
- El Diario Vasco ..... 943 74 40 73
- El Correo Español ..... 943 74 10 82
- Zazpiki irratia ..... 943 74 34 74
- Egunkaria ..... 943 30 02 28
- Gara ..... 943 31 69 99

## Eusko ren

## Tren AUTOBUSAK

### DONOSTIA-BILBO

Egunero  
Donostia ~ 5.45 06.45... 20.45  
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02  
jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

### BILBO-DONOSTIA

Egunero  
Bilbo 06:00 7.00... 20.00  
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23  
\* jaiegunean 11.00man hasiko dira

### MENDARO-ELGOIBAR

Egunero  
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

### ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan  
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25  
jaiegunetan  
Elgoibar 08.25 09.25 10.25.. 21.25

### ELGOIBAR

SIGMA • ..... • /111111AGA

#### SIGMA - ARRIAGA

8:00    8:10  
9:25    9:35  
11:10   11:40  
11:20   11:50  
12:10   12:40  
12:20   12:30  
13:10   13:20  
13:20   13:30  
18:20   18:30  
19:10   19:20

#### ARRIAGA - SIGMA

8:10    8:20  
9:55    10:05  
11:10   11:20  
11:40   11:50  
12:10   12:20  
12:40   12:50  
13:10   13:20  
18:10   18:20  
19:00   19:10

## "Madre Amantisima" antzezlanaren taularatuko du Avispa Produzekioak taldeak datorren barixakuan, azaroaren 7an

"Madre Amantisima" antzezlanaren eskainiko du Avispa Produzekioak taldeak datorren barixakuan, hilaren 7an, Herriko Antzokian. Cesar Dieguezzen zuzendaritzapean 4 antzezle taularatuko dira Rafael Mendizabalen idatziei bizia emateko. Saioa 22:15ean hasiko da.

"Madre Amantisima" seme bakarreko ohiko familia xume baten inguruko antzezlan da. Juan, semea, klinika laborategi bateko zuzendaria da eta luzaroan etxetik kanpo egon ostean ezusteko batekin itzuliko da, Carlos mutil lagunarekin, alegia. Urte mordoan ezkutuan mantendu ostean, bere homosexualitatearen berri emango die semeak gurasoei. Hauen lehen erreakzioa indarkeriazkoa izango da, baina lehen uneko nahasmena pasata, kemenez borrokatuko dute semea heriotzaren atzaparretatik askatzeko. Hasierako frustraziotik borrokara pasako dira, onarpenera ondoren eta



konpromisora azkenik. Izan ere, ez dago amodioak konpon ez dezakeen ezer. Hona egileak bere antzezlanari buruz esandakoa: "Ikusleak une batez Marta,

Elias, Juan eta Carlos protagonisten azalean sar zintezen nahi izan dut antzezlan honekin. Beraien kezka eta ezbeharrak senti zezaten nahi nuen, guztioi dagokigun arazoa bizi baitute. Negar egin, barre egin, hunkitu, hitz batean: sentitu. Modaz pasata dauden kontzeptuak dira eta bizimoduaren abiadurak ez digu gizakiaren gaitasun zoragarri honetaz gozaten lagatzen. Errealitatearen islada izan nahi

duen antzezlanaren gustuko izatea espero dut, hunki zaitzatela, eta batez ere edozeini gerta dakiokkeen gauza bat dela hausnartzea nahi nuke".

### Arriaga Antzokira irteera "Maria Pineda" obra ikusteko

Haizea Emakume taldeak "Maria Pineda" obra ikustera joateko irteera antolatuta du abenduaren 6an, zapatuan, Bilboko Arriaga Antzokira. Ikuskizun honek Granadan jaiotako heroinaren istorioa, Federico Garcia Lorcarentzako testuak eta Sara Barasen dantza flamenkoa uztartzen ditu. Maria Pineda 1831. urtean, Fernando VII. errege zela, urkatu zuten Granadan. Askatasun gogoek eta bizi zen garairako zituen ideia aurrerakoiek eraman zuten heriotzara, 26 urte besterik ez zituela. Sara Baras (Cadiz, 1969) dantzari flamenkoak mundu guztian erakutsi duen ikuskizunean Maria Pinedaren zorigailtzeko azken egunak irudikatzen dira eritmo flamenkoaz. Sarrerak aurrez erostea komeni denez, lehenbailehen eman behar da izena Pitxintxu dendan.

## "Idatziak" liburuxka argitaratu du Udalak euskaraz errazago idazten laguntzeko


Ikastetxe, erakunde, elkarte eta abarretan banatuko da

Ulgoibarko Udalaren Euskara

**Batzordeak** "Idatziak" liburua argitaratu du idatzizko euskara zabaltzen eta normalizatzen laguntzeko asmoz. 60 orriko liburuxka 9 ataletan banatuta dago: gutunak osatzeko esapideak, gonbitak, zorion agurrak, doluminak ematea, eskolako idatziak, etxe atariko auzokideen komunitateen idatziak, bidaia agentziekiko gutuneria, erreklamazioak eta Udalarekiko harremanetan herritarrek erabiltzen dituzten idatziak.

Euskara Sailak liburu hau ahalik eta gehien zabaltzeko nahirik, horren banaketari ekin dio. Liburuok zuzenean banatuko dira herriko ikastetxe, erakunde, elkarte eta abarretan.

Horretaz gain, liburu hori esku artean izan nahi duten herritarrek Euskara Saileko bulegoetan eskuratu ahal izango dute, Kultur Etxeko 1. pisuan goizeko 7:30etatik 15:00etara.



"Idatziak" liburuaren egileak Debagoienako Udalak izan dira. Elgoibarko Udalak ekimen horren ildotik jarraitu nahian bere edizio propioa argitaratu du. Hainbat idatzi eredu jasotzen dira euskaraz idazterakoan laguntzeko eta sortzen diren zalantzak argitzeko. Liburu hori sarean kontsultatu nahi duenak, PDF formatuan ere ikusi ahal izango du Elgoibarko Udalaren web gunean ([www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org)).

## %7,5 gehiago kostako da Patronatuko abonatu izatea urtarrietik aurrera

Gaur egun, Gipuzkoako bigarren abonurik merkeena du Elgoibarko Kirol Patronatuak

*Azken Udal Plenoan hartutako erabakia-  
ren arabera, %7,5 igo dira Udal Kirol Pa-  
tronatuko bazkideek ordaindu beharko  
dituzten abonuen zenbatekoak. Kirol ins-  
talakuntzen alogerak eta ikastaroetan  
parte hartzeko ordaindu beharrekoak,  
berriz, %5 igotzea erabaki zen.*

**R**amon Mujika, Udal Kirol Patronatuko zuzendariaren mesanetan zerbitzuen eskaintza zabaldu eta handitzeko hartu da zergak igotzeko erabakia. "Aurreikusten diren inbertsioak egiteko beharrezkoa zen zergak igotzea. Hala ere, Gipuzkoako kirol zerbitzuen artean preziorik baxuenak ditugu, bigarren baxuenak hain zuzen ere. Gainontzeko herrietan prezio altuagoak ordaindu behar izaten dituzte".

Bestalde, orain arteko abonatu sistema 2004. urtetik aurrera aldatzeko asmoa dutela azaldu du Patronatuko zuzendariak, "gutxinaka, abonua ordaintzearen truke Udal Kirol Patronatuko kirol instalakuntza guztiak ezer gehiago ordaindu gabe erabiltzeko aukera izatea da gure asmoa. Olaizagako pista, Mintxetako futbol zelaia, eta Ikastolako frontoia bakarrik ordaindu beharko lirateke. Datorren urteko urtarrietik aurrera, esaterako, abonatuak ez dute Mintxetako muskulazio gela erabiltzeagatik ezer ordaindu beharko eta monitore baten aholkuak jasotzeko aukera izango dute. Honez gain, sauna finlandiarra, bainu turkoa, squash-a, frontoi txikia eta rokodromoa ere dohainik izango dira abonatuentzat".

### Egin beharreko Inbertsioak

Egin beharreko inbertsioak izan dira zergak igotzearen arrazoi nagusienetakoa. Izan ere, Mintxetako futbol zelaiko belar artifiziala aldatzekotan daudela azaldu digu Ramon Mujikak, "beste futbol zelai artifizial batzuk begiratzen ari gara egokiena izan daitekeena aukeratzeko.



*Olaizagako igerileku txikiak ura filtratzeko sistema propioa izango du aurki.*

Gauzak ondo badoaz futbol denboraldi amaieran hasiko genituzke lanak. Mintxetako igerilekuetarako aldagela berriak ere inbertsioen atalean sartzen dira. Hauetaz gain, Eusko Jaurlaritzaren legionelaren aurkako araudia bete ahal izateko Olaizaga Kiroldagiko igerilekuak egokitu beharko dira. Araudi honek Euskal Herriko igerileku ia gehienak behartuko ditu berrikuntzak egitera. Hau dela-eta, ia herri gutietako Kirol Patronatuak igo beharko dituzte zergak. Gaur egun martxan daguden sistemak 50 gradutan berotu eta mugiarazten du ura, baina 75 gradutan berotu behar da legedi berriaren arabera. Gainera, metalezko hodi zaharrak kendu eta PVC materialeaz egindakoak sartu beharko dituzte. Bestalde, orain arte uraren filtrazio sistema bateratua zuten igerileku handiak eta txikiak, baina bakoitzak berea izan behar duenez, igerileku txikia independizatuko duen ur-punpa jarriko dugu eta aurki hasiko gara erabiltzen".



### Prezio berriak

- 18 urte	71,70 euro
+18 urte	83,00 euro
+ 60 jubilatuak	77,00 euro
Unibertsitariak	75,35 euro
Familiarra	150,10 euro
Familiarra jubilatuentzat	135,00 euro
Ezinduk	64,15 euro

## Jokalari gazteen aldeko apustua egin du Elgoibarko areto futbolak

**S**an Pedro Elgoibar Areta Futbol Klubeko lau taldeek hasia dute jadanik liga txapelketa. Iaz maila galdu ostean, Nazional B kategorian jokatzen ari da Kenci Elgoibar talde nagusia. Jokalari gazteen eta beteranoen arteko oreka lortzea da taldeko arduradunen asmoa. "Hemendik lau urtera talde indartsua osatzea da helburua eta piskanaka jokalaria gazteak sartuko ditugu talde nagusian. Denboraldi hasiera honetan adibidez, iaz jubenil mailako taldeetan aritutako gazteak igo ditugu

lehen taldera. Gauzak ez dira oso ondo hasi, baina normala da. Hector eta Gus hilabete baterako lesionatuta daude eta Txirrol, berriz, urtebete lesionatuta egon ostean hasi da berriz ere jokatzen. Orotara etorkizun handiko jokalaria gazteen aldeko apustua egin dugu, baina pazientzia izatea ezinbestekoa da. Emaitzak iritsiko dira, ziur gaude".

Lanbroa (Gipuzkoako lehen maila) eta jubenil mailako Lojantzi taldeek guztiz eraberritu dituzte jokalariai. Lojantzi taldean esaterako, jokalariai

guztiak dira berriak eta batzuk jadanik jokatu dituzte zenbait partidu Lanbroa taldearekin.

Jubenil mailako Magefesa taldearen egoera oso bestelakoa dela adierazi digu Jose Ramon Iriarte presidenteak, "Nazional maila moduko kategoria gogorrean lehiatzeko Elgoibar, Eibar eta Ermuko jokalaria onenak bildu ditugu talde berean. Talde indartsua izan daiteke, baina elkarrekin jokatu gabeak direnez, denbora pixka bat beharko dute elkar ezagutzen eta maila berrira egokitzen".

### KENCI (NAZIONAL B)



Tente, ezkerretik eskumara:

Gorka Azpilikueta (2. entrenatzailea),  
Joseba Rojo, David Garrido, Gustavo  
Jimenez, Alberto Sanchez (delegatua) eta  
Jon Pozuelo (entrenatzailea).

Makurtuta, ezkerretik hasita:

Gorka Alkorta, Jon Cejuela, Oscar Zorrilla,  
Oscar Diez "Txirrol" eta Carlos Diez.

Argazkian falta dira:

Hector Garrido, Sergio Fernandez eta Mikel  
Leon.

### LANBROA (2. MAILA GIPUZKOA)



Tente, ezkerretik eskumara:

Alberto Pampim, Mikel Leon (entrenatzailea),  
Ion Garcia, Gabriel Alves, David Bao, Julen  
Valero eta Sergio Fernandez.

Makurtuta, ezkerretik hasita:

Joseba Rojo, Asier Pires, Iban Fernandez,  
Jonatan Blazquez, Emmanuel Rios.

Argazkian falta dira:

Hector Garrido (entrenatzailea), Jon  
Mekolalde, David Garrido, Carlos Diaz eta Javi  
Rodriguez.

## LOJANTZI (JUBENILAK)



Tente, ezkerretik eskumara: Segio Fernandez (entrenatzailea), Imanol Perez, Jon Menbrillera, Eñaut Aranbarri, Jakob Bilbatua, Gaizka Trinidad, Jon Garcia, Dani Alonso eta Andoni Atrio (2. entrenatzailea). Makurtuta: Asier Lopez, Juan Martinez, Iñigo Agirregomezkorta, Vicente Santos, Ander Conde, Asier Guemez, Urko Vitores, Aitor Gonzalez eta Javi Rodriguez.

## Behobia-Donostiarako autobusa jarri du Udal Kirol Patronatuak



Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak i Behobia-Donostia lasterketa herrikoian parte hartzea nahi duten korrikalari guztientzat autobusa jarri du. Froga hau datorren azaroaren 9an, domekan, izango da. Izen-emateak Olaizaga Kiroldegian egin beharko dira azaroaren 7ko goizeko 12:00ak baino lehen. Prezioa 9,50 eurokoa izango da. Lasterketa

honek arrakasta itzela izaten du eta korrikalari kopurua mugatzera behartzen ditu antolatzaileak. Iaz esaterako. 11.000 lasterkari onartu zituzten eta hauetatik 47 izan ziren elgoibartarrak. Oscar Malvar izan zen helmuga zeharkatu zuen lehen elgoibartarra. Sailkapen nagusiko 22. postuan helmugaratu zen 1:06:41 denborarekin.

## Kirol Patronatuko instalazioak itxita egongo dira azaroaren lean

Santu Guztien Eguna dela-eta, azaroaren lean, zapatu honetan, Udal Kirol Patronatuko instalazioak itxita egongo

diren oharra zabaltzeko eskatu digute. Txapelketa federatuetako partiduak bakarrik jokatuko dira.

## EMAITZAK

### Futbola

**Mondragon 2 - Haundi 2 (Pref.)**  
 Elgoibar **2** - Bergara **1** (1. erreg.)  
 Elgoibar **3** - Aretxabaleta **2** (Jub.)  
 Amaiak Bat **1** - Elgoibar **4** (kad.)  
 Elgoibar **0** - Eibar **5** (Inf.)  
 Urki **0** - Elgoibar **2** (Neskak)

### Esku pilota

**Gipuzkoako Txapelketa**  
 Lazkao **22** - Lagunak "B" **5** (Kad.)  
 Lagunak "A" **11** - San Esteban **22** (Kad.)  
 Lagunak **11** - Ilunpe **22** (Jub.)  
 Lagunak "A" **22** - Lazkao **10** (Nag.)  
 Anaitasuna **22** - Lagunak "B" **5** (Nag.)  
 Arrasate **22** - Lagunak **5** (Int.)

### Eskubaloia

Arrasate **21** - Sanlo Elg. **21** (Sen mut.)  
 Tecnifuelle Elg. **26** - Escolapios **23** (Sen. mut.)

### Areto Futbola

Kenci Elg. **3** - GSI Bilbao **6** (Nazional B)  
 Bilkoín Legorreta **5** - Lanbroa **2** (2. maila)  
 Lauburu Ibarra **4** - Magefesa **4** (Jub.)  
 Lojantzi **4** - Lasarte "A" **2** (Jub. Gip.)

### Idarraga kafeak 6. saria

**HAUNDIko jokalari erregularrena 02/03**  
**JOKALARIA** ..... PUNTUAK

1-Arrasate .....	
2-D. Rodriguez .....	
3-Izagirre .....	
4-I. Gonzalez.....	
5-Navarrete .....	
6-Javi Gomez .....	
7-M. Tarragual .....	
8-M. Gonzalez .....	
9-Jakes .....	
10-Elkoro .....	

## AGENDA

### Areto Futbola, Kiroldegian Domekia, 2

11:15 Lanbroa - Eraso (2. maila Gip.)  
 12:30 Magefesa - Berriotxoia (Jub.)

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 1**  
 12:00 Elgoibar- Ilintxa (Neskak)  
 16:30 Haundi - Urola (Pref.)  
**Domekia, 2**  
 11:30 Elgoibar - Zestoa (Kad.)

### Esku pilota

**Barixakua, 31**  
 22:00 Lagunak "B" - Ozkarbi (Kad.)  
 22:45 Lagunak "B" - Eibar (Nag.)

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Zapatua, 1**  
 9:45 Tecnomeca Elg. - Urduliz (Kad. mut.)  
 11:15 Pneumax Elg. - Urduliz (Jub. mut.)  
 12:30 Sanlo Elg. - Ereintza (Sen. mut.)

## 0<sup>1</sup>/<sub>kk</sub>4 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durangoaldeko enpresak mantenturako teknikaria behar du. Erref. 111839/1

Balmasedako enpresak euskara irakaslea behar du. Erref. 110868/4

Debarreneko enpresak pasteletoa behar du. Erref. 109627/2

Debagoienako enpresak espezialista elektronikoa behar du. Erref. 110711/2

Donostialdeko enpresak komertziala behar du. Erref. 111405/3

Gasteizko enpresak telekomunikazio ingeniaria behar du. Erref. 111346/2

Debagoienako enpresak enpresak arotz laguntzailea behar du. Erref. 111308/1

Debagoienako enpresak elektronikoa behar du. Erref. 111958/2

Durangoaldeko enpresak "conta plus" irakaslea behar du. Erref. 111869/1

Durangoaldeko enpresak metrologoa behar du. Erref. 111851/1

Durangoaldeko enpresak ileapaintzailea behar du. Erref. 111422/1

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo Elgoibaren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juanistil **943 74 80 19** edo IMH (Nora RamOn) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

Neska gaztea edozein lan egiteko prest. Esperientzia umeak zaintzen. v 665 20 18 24

\* Esperientziadun kamareroa tabernan edo kafetegian lan egiteko prest. Ordu-tegi flexiboa daukat. v 943 74 46 34

Mutila buzoneo lanak egin edo publizitate banatzeko prest. z. 678 212 800

Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan ere bai. v 626 91 49 04

Emakumea egun erdiz garbiketa lanak egiteko prest. v 639 88 20 04

36 urteko emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. v 943 03 08 45

Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka ere bai. v 660 78 00 73

Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Tr 943 75 24 31 / 600 89 06 41

Emakumea garbiketa lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. 660 91 94 23

4 Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. v 686 10 85 52

Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. 943 74 36 38

Erizain laguntzailea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. tr 943 74 37 60/678 43 76 33

### ESKAINTZA

+ Asteazken zehar, gauaz tabernan lan egiteko pertsona behar da. Euskalduna eta esperientziaduna. v 687 05 17 89

Kamareroa behar da. Tr 943 74 42 65

## Etxebizitzak

\* Etxea salgai. Arregitorren egiten ari diren etxeetako bat. 70m<sup>2</sup>, dena kanpora begira. v 646 38 56 56

◆ Pisua salgai Urasandin. N°20-4.F. 943 74 17 01

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta despentsa. Eguzkitsua. 12 636 22 31 42

Pisua salgai Mendaron. Egongela, sukaldea, 2 logela, komuna eta balkoia. Tr 606 86 10 07

+ Etxebizitza salgai San roke auzoan, Arregitorren. 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, sukaldea, saloia, bi komun eta bi balkoi. Trasteroa ganbaran. Guztiz berriua eta kalitatezko muebleekin (aukeran). v 616 78 51 20 (arratsaldean deitu)

◆ Neskak pisua edo logela hartuko luke alokairuan. Konpartitzeko. v 605 74 13 70

Etxebizitza salgai Santa Ana kalean. Sukaldea, 3 logela, komuna eta bi ganbara. a 665 70 30 24

\* Pisua erosiko nuke donostian. Ez zait inporta obra egiteko baldin badauka. Tr 699 13 40 81 (Ainhoa)

Logela alokatzen da, sukalde erabilpena barne, San Roke auzoan. v 943 74 88 53

## Garajeak

Garajea alokatzen dut. Tr 943 74 18 81

Bi garaje itxi salgai kiroldegi ondoan. v 626 60 71 55 (Marian)

4 3 kotxe sartzeko garaje itxia salgai kiroldegi aurrean.. lat 608 39 43 05

\* Garajea salgai Urasandin. (Aniak edifizioan). Tr 620 43 14 80 (18:00etatik aurrera deitu)

## Partikularrak

◆ DBHko eta 1.1-ko klase partikularrak ematen dira. 616 26 20 13

\* DBH 3. mailako klase partikularrak emateko pertsona behar da. Tr 678 03 50 60

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Salerosketak

W. Polo GT autoa salgai. Modernoa, 107.000 km. Gurpil berriak, IIa 2004ko abuztura arte. 1000 euro. Tr 943 74 43 10

Funtzionamendu oneko denda saldu edo traspasatzen da. Tr 665 70 22 28

+ Pentax P-30T Reflex argazki kamera salgai. 28-80mm objektiboa. Flash eta kamara zorroa opari. Prezio negoziagarria. Tr 676 92 94 53 (21:00etatik aurrera)

◆ Technics SL-1 210 MK2 Mesa Eccler SMAC 42 pletina salgai. 50 disko opari. vr 617 98 15 72

◆ Opel Astra salgai. Gasolina 1.600 G.L., 100 cv, 4 atekoa. 9 urte, egoera oso ona. 2.300 euro. Yr 636 04 70 28 (Ane)

\* Opel Corsa Sport salgai. 1.4, 16y. Llantak, lehiu igogailu elektrikoak, airbag... Prezio onean. v 699 34 70 40

◆ Play Station 1 kontsola salgai. Txiparekin, mando bat, memory card eta 18 joku. v 626 02 71 93

◆ Errepiderako bizikleta salgai. 3 plato, aluminiozko kuadroa. Berria. Prezio interesgarria. v 652 72 76 31

\* Citroen AX, 1500 diesel autoa salgai. 5 urte. v 649 61 31 34

## Bestelakoak

4 Zapatuan, urriaren 25ean, Alcatel markako mobil txikia galdu nuen San Franzisko kalean. Grisa da. 12 943 03 35 01 (Eukene)

Domekan, hilaren 26an, katu pertsua bat aurkitu genuen Foruen plazan. Jabeak deitu dezala. Tr 629 44 25 80 (Zuriñe edo Ion)

+ Urrezko pultsera bat galdu nuen pasa den astean. Ane ipintzen du. Tr 943 74 23 53

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea  
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
Tel. 943 741 461

Ordutegia:  
Astearte-ostiral: 16:00-20:00

## Agurrak



• Zorionak Josu Palaciosi, azaroaren 3an 4 urte beteko dituzulako. Familiako eta bereziki, Amaiaen partez.



• Konturatu orduko, txikiena ere handi! Zorionak **politta!**



• Zorionak Javier Oregiri, hilaren 3an, 5 urte beteko dituelako.



• Zorionak **Jon**, atw 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak Eider Eiturari, urriaren 1 ean lehen urtebetetzea egin zuelako. Etxekoan eta bereziki, anaia Enekoen partez.



• Zorionak **Sergiori**, hilaren 25ean, 14 urte bete zituelako. Gurasoen eta arrebaen partez.



\*Zorionak **Aitor Barrutiari**, gaur, hilak 31, 6 urte bete dituelako. Gurasoen eta bereziki, Nerearen partez.



• Zorionak **Nora Anton**, hilaren 3an, 11 urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez.



• **Miren** maitxia, zorionak urriaren 29an, 6 urte bete zenituelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak **Aitor**, urriaren 29an, 7 urte bete zituelako. Etxeko guztien, eta Nerearen partez. Aupa Real!



• Zorionak **amama Martina** eta **aitxibca Jose Mariri**. lloba Idurre eta Mirenen partez.



• Zorionak **Ane Galdosi**, azaroaren 3an, 4 urte beteko dituelako. Familiako eta bereziki, bere ahizpa Mariaren partez.

• Zorionak **Paul** eta **Danel**, urriaren 19ean eta 28ean, urteak bete zenituztelako. Muxu asko, Jonen partez.

◆ Zorionak Aitor, urriaren 5ean, 7 urte bete zenituelako. Familiakoan, Aitzi eta Nagore Diegoren partez. Aupa Real!

### BEKAIK

#### Zientzia-kazetaritza

Espainiako Zientzia Ikerketetako Kontseilu Gorenak doktorego aurreko 4 beka eskaintzen ditu 2003. urterako, zientzia-kazetaritzan hasi nahi duten kazetaritza espezialitateko Informazio Zientziako lizentziatuentzat. Bekek urtebeteko iraupena izango dute, 985 euro gordin hilean. Epea: azaroak 6

#### Teknologo eta ikertzaileak

Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Nekazaritza Sailak euskal nekazaritza eta arrantzako eta elikadurako sektoreko zientzia eta teknologia ingurunean eta enpresa-ingurunean (merkatuak, marketinga eta enpresa-antolamendua) ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko beka antolatu ditu. Bi beka-programa: doktorego aurreko beka eta teknologoaren prestatuntzarako beka. Epea: azaroak 8

### LBOAKETAK

#### Ipuinak

"Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako" elkarteak IV. literatura-lehiaketa antolatu du. Gaitzat "Zer egin dezaket mundua bidezkoagoa izan dadin?" duten lan argitaratu gabeak eta originalak aurkez daitezke, euskaraz edo gaztelaniaz. Lehiaketak lau maila izango ditu: 17 urtetik gorakoak (4-8 orri), 87, 88 eta 89an jaiotakoak (3-6 orri), 90, 91 eta 92an jaiotakoak (2-4 orri) eta 93an jaiotakoak (1-2 orri). Epea: azaroak 15

#### Konpositore gazteak

INJUVEk 2003ko konposizio-topaketak antolatu ditu Malagan. Topaketetan 35 urtez azpiko kontserbatorioko edo musika-ikastegietako ikasle edo graduatuek, eta musika-interpretazio garaikidearen sorkuntzan interesatuta dauden gainerako ikasleek har dezakete parte. Aurkezter diren guztien artean 30 parte-hartzaile aukeratuko dituzte eta horietako 15en obra bat aukeratuko dute irakurketa. panelerako. INJUVEk 4.500 euroko sari bat emango du eta epaimahaia 3.000 euroko bi sari proposa ditzake. Gainera konpositoreek beste tailer, jaialdi edo programa batzuetar parte hartzea bultzatuko da. Epea: abenduak 15

#### Mendiko argazkiak

Gasteizko Manuel Iraider Txangozale Elkarteak XI "Hiru Handiak" argazki-lehiaketa antolatu du. Argazkier gaia mendia izango da (paisaia, jarduerak, kirolak...) lehiakide bakoitzak gehienez 18 x 24 cm. eta 30 x 40 cm bitarteko neurriko 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu koloretan edo zuri-beltzean, beste lehiaketaren batear saritu gabeak. Ez da ez argazki-muntaia ez filtroel erabilera onartuko. Ez dira egongo eskudiruko sariak Epea: abenduak 5

### IANA

#### Administrari laguntmileak

Arrasateko Udalak administrari laguntzaile lan-polts osatu nahi du. Epea: azaroaren letik 10era

#### Nekazaritza ingeniaria

Errioxako Administrazio Bereziko Fakultatiboen Kidegoan Nekazaritza Ingeniari bat bitartek gisa kontratatzeko deialdia. Nekazaritzako Ingeniari-titulu izatea beharrezkoa da. Epea: azaroak 3

#### Peoiak

Arrasateko Udalak peoien lan-poltsa osatu nahi dt Izena emateko azaroaren 1ln goizeko 10etan Arrasateko Udalean azaldu.

#### Ordenantzak

Eibarko Udalak 3 ordenantza behar ditt Derrigorrezko baldintzak: Eskolaratze Ziurtagiria eta : hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: azaroak 14

## 31 BARIXAKUA

18:00 "JAIOTZEN ESTALPEAK"

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Egilea: Sabin Oregi

Kultur Etxeko sotoan

Azaroaren 19ra arte



## 3 ASTELEHENA

19:00 HERRI ESKOLAKO

ASANBLADA

Herri Eskolan

## 7 BARIXAKUA

22:15 ANTZERKIA


Antzezlanak: "Madre Amantisima"

Taldea: Avispa Produksioak

Herriko Antzokian



ZINE  
kluba



## 1111arie-Jo y sus dos amores

Zuzendaria: Robert GuMiguian.

Antzezleak: Ariane Ascaride, Jean Pierre Darroussin, Gerard Meylan.

"Marius eta Jeanette" (2000) eta "Hiria lasai dago" (2001) filmen ondoren, gizarte eta politika ikuspegia alde batera utzi eta bikote harremanetan oinarrituko da Gu&liguian frantziarraren azken filmea. Konpromisodun zinegilea maitasun eta desio gorabeheretan murgildu zaigu orainoan. Ez du maitaleei buruzko betiko filma egin nahi izan, desioen eta pasioen onarpenak askotan dakartzan kontraesan eta egoera zailak islatzea izan du helburu. Maitasunaren unibertsoa xehetasunez deskribatuko du eta pertsonaiak inolako erromantizismorik gabe aurkeztu eta garatuko ditu.



## IKASTAROAK

### Tapizak

Haizea Emakume Taldeak tapizak egiten erakusteko ikastaroa eskainiko du. Ikastaroa eman ahal izateko jende gehiago behar dutenez, lehenbailehen izena ematea komeni da klaseekin hasteko. Izenematea eta informazio gehiago Pitxintxu dendan.

### Kzgunea azaroan

Kzguneak hainbat ikastaro eskainiko ditu azaroan ere. Azaroaren 17tik 28ra Internet Kzgunea deituriko 20 orduko ikastaroa izango da 16:00etatik 18:00etara. Besteak beste, interneten hasteko ikastaroa, web orrietan nabigatzea, informazioa bilatzea, posta elektronikoa eta bideokonferentziak erabiltzen irakatsiko da. Azaroaren 10etik 14ra, berriz, Nagusiweb ikastaroa eskainiko da Kzguneak Merkatu Plazan duen egoitzan. 10 orduko oinarrizko ikastaroa izango da eta 50 urtetik gorakoentzat zuzenduta dago. Ordutegia, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara izango da. Ikastaroez aparte, gai ezberdinen inguruko mintegiak ere izango dira azaroan: "Viamichelinekin bidaiatu": azaroaren 5ean, 16:00etatik 17:00etara. "Zure egunkaria irakurri": azaroaren 10ean, 19:00etatik 20:00etara. "Finantza erakundeekin lan egin". Azaroaren 12an 18:00etatik 20:00etara (oinarrizkoa), azaroaren 14an, 18:00-etatik 20:00-etara (aurreratua) eta "Flashget". Azaroaren 25ean, 18:00-etatik 20:00etara. Bestalde, azaroan arratsaldeko ordutegiarekin jarraituko du Kzguneak (16:00etatik 18:00etara).

## OSPAKIZUNAK

### Ikasle ohien afaria

1974an jaio eta Ikastolan 8. mailan batera ibilitako ikasle ohiek afaria egingo dute azaroaren 22an, zapatuan. Txarriduna jatetxean izango den afarirako izena emateko 20 euroko diru sarrera egin behar da Euskadiko Kutxan, azaroaren 15a baino lehen honako zenbakian: C.L.P. 3035 0007 29 0070048812. Afaria gaueko 22:00etan hasiko da.

## BATZARRAK

### Herri Eskolako asanblada

Herri Eskolako guraso guztiak gonbidatuta daude datorren astelehenean, azaroaren 3an, Herri Eskolan bertan egingo den asanbladara. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da batzarra.



### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### "Piratas del Caribe"

31, barixakua: 22:15

1, zapatua: 19:30-22:15

2, domekia: 16:30-19:30-22:15

3, astelehena: 22:15

#### "Marie-Jo y sus dos amantes"

(Z.K.)

6, eguena: 22.15

### EIBAR, Unzaga

### EIBAR, Rialto

#### "Noviembre"

31. barixakua: 19:30-<sup>99</sup>:15

2. zapatua: 17:00-19:30-<sup>21</sup>:15

3, domekia: 17:00-19:30-22:15

4, astelehena: 19:30-22:15

5, martitzena: 19:30

6, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litekeen etnanaki en aldaketan erantzukizunik



## "Piratas del Caribe"

Zuzendaria: Gore Verbinski.

Antzezleak: Johnny Depp, Geoffrey Rush, Orlando Bloom.

Jack Sparrow (Johnny Depp) kapitainarentzat misterioz eta abenturaz beteriko itsasoa da karibea. Bizimodu idilikoa darama Barbossa (Geoffrey Rush) kapitain maltzurak bere unti zoragarria lapurtu eta gobernadorearen alaba bahitzeko erabiltzen duen arte. Untzia berreskuratzeko borrokan gobernadorearen alabaren haurtzaroko lagun baten laguntza izango du. Barbossa kapikaina eta bere tripulazioak sekretu bat ezkututzen du, ordea, gaua iristean eskeleto bizidun bihurtzen dira.

N

m



# A


ste honetako erretratu zaharra herritar batek utzi digu. Argazki hau 1957. urtekoa da, eta Banco Gipuzcoano-ren inaugurazioan aterata dago. Banketxe hau denbora luzez egon zen gaur egun San Migel erlojudenda dagoen tokian, eta 1957an aldatu zen Pedro Migel Urruzuno kalera. Urte honetan bertan egin zen inaugurazio ofiziala, eta luntx ederra eskaini zitzaizen bazkide, enpresari eta bertara gerturatu ziren guztiei. Jende asko bildu zen inaugurazioan, eta horietako batzuk argazkian ikusten ditugunak izan ziren. Gogora dezagun zeintzuk diren koadrila honetan azaltzen direnak.

Ezkerretik eskumara: Luis Clerigue, Javier Alvarez (t), Anjel Aizpitarte (t), Iñaki Alvarez, Aduardo Agirre (t) (urte askotan bertako langilea izandakoa), Julian Mujika, Pedro Garcia (t) eta Prudencio Etxaniz.




## ESKERTZA

2003ko urriaren 27an, 53 urte zituela hil zen **JOSE MARTIN GORROTXATEGI**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2003ko urriaren 26an, 52 urte zituela hil zen **ITZIAR AIZPITARTE ZUBIAURRE**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# mmedenareR merksdiudA 1. mdrkak dauz1:11,11



Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren Fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu.

## [serieZ ZZ



- 7 erosotasun gune
- Aireztapenerako zeharkako kanalak
- Kanpoko Pundak U Formadun kremaierarekin
- Zetazko, artilezko eta algodoizko akoltxatua (40°-tan garbi daiteke)

**LAGUNAK**  
San Roke kalea, 20  
tel: 943 74 44 57  
**ELGOIBAR**



# MADRE AMANTISIMA

Azaroak 7, ostirala  
Herriko Antzokian  
22:15ean



Senar-emazte batel< espero ez zuen  
errealitate bati egin beharko dio aurre.  
Hasierako frustraziotik  
borrokara pasako dira,  
onarpenera ondoren eta  
konpromisora azkenik.

